

MAHASTIAK BERREGITURATZEKO ETA BIRMOLDATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

OINARRIZKO INFORMAZIOA

OHARRA: Dokumentu honek ez du arau-izaerarik, eta Arabako Lurralde Historikoan mahastiak berregituratze eta birmoldatzeko diru-laguntzen betekizunei, prozedurei eta emakidari buruzko informazio-gida baino ez da.

Mahastiak berregituratze eta birmoldatzeko laguntza Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektorialaren (MAES) barruan sartzen da, eta Europako Nekazaritza Berme Funtzaren (ENBF) kontura finantzatzen da. Ustategiaren lehiakortasuna handitzea, mahatsondo laboreak klima-aldaketara egokitzea edo ingurumenaren aldetik jasangarriagoa bihurtzeko helburuarekin, mahastiak berregituratze edo birmoldatzeko eragiketak egiteko asmoa daukaten ustategiei zuzenduta daude.

Arabako Lurralde Historikoan diruz-lagungarriak diren eragiketa motak hauek dira:

- Mahastiak birlandatzea
- Mahastiaren kudeaketa tekniken hobekuntza eramate-sistema aldatzegatik
- Barietate aldaketa gaintxertaketaren bidez
- Arrazoi sanitario edo fitosanitarioen ondorioz agintari eskudunak aginduta erauzitako mahastiak birlandatzea

DOKUMENTU HONEN EDUKIA:

1.-	Araudi marko berria	2
2.-	Eskabide aurkezpene, onarpena eta diru-laguntza ordainketaren prozedura.....	4
3.-	Eskatzaileen onargarritasun betekizunak.....	7
4.-	Eragiketen onargarritasun betekizunak	8
5.-	KOntuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuak	10
6.-	Diruz lagundu daitezkeen ekintzak eta zenbatekoak	13
7.-	Aplikatu beharreko araudia	14



1.- ARAUDI MARKO BERRIA

2023an, NPEaren araudi berria indarrean jarri zenean, 2023-2027 aldi berri bat hasi zen. Aldi horretan, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzak jasotzen zituen eta orain arte Espainiako Mahastizaintza eta Ardogintza Sektoreari Laguntzeko Programa (EMASLP) izenez ezagutu izan dena NPetik isolatutako neurria izateari utzi dio, eta Plan Estrategikoaren (NPEPE) parte izatera igaro da, mahastizaintzako eta ardogintzako esku hartze sektoriala (MAES) izeneko esku hartze gisa, eta, beraz, aipatutako NPEPEaren helburuak lortzen lagundu behar du.

Horren ondorioz, mahastizaintzako eta ardogintzako esku hartze sektorialean sartutako laguntzak arautzen dituen araudia aldatu da, eta Espainian 905/2022 Errege Dekretua argitaratuz arautu dira. Horiek horrela, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzak ildo orokorretan mantentzen dira, baina NPEaren helburu orokorrekin bat datozen ekoizpen eredu iraunkorrakoak lortzera bideratzen dira.

Euskadin, deialdi bakoitzeko oinarri arautzaileak eta eskabideak aurkezteko epeak batera argitaratzen dira autonomia erkidego osorako, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen den Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Aginduaren bidez.

Oro har, arau esparru berri honetan laguntza eskatu nahi duten mahastizaintza ustategietan eragin handiena duten berrikuntzak honako hauek dira:

- Laguntza eskaeran eragiketaren helburu orokorra zehaztu behar da, bai eta hura lortzeko zer ezaugarri betetzen dituen eta ea ekarpen positiborik egiten duen ere mahastizaintzako eta ardogintzako esku hartze sektorialak lortu nahi dituen ingurumen helburuetako bat lortzeko.
- Administrazioarekin harremana baliabide elektronikoen bidez soilik izateko betebeharra ezarri zaie pertsona juridikoei, nortasun juridikorik gabeko erakundeei eta baita pertsona fisikoei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegorako aurrekontu esleipena ez bada nahikoa aurkeztu diren onartzeko moduko eragiketa guztiak diruz laguntzeko, ezarritako lehentasun irizpideen arabera lortutako puntuazioa oinarri hautatuko dira eragiketak.
- Lehentasun irizpide berriak zehaztu dira, eta haietatik bost nahitaez aplikatu behar dira estatu osoan. Gainerako irizpideak autonomia erkidegoak definitu ditu.
- Egindako kostuen gaineko laguntzaren ehunekoa % 45etik % 50era aldatzen da estatuko irizpideetako bat betetzen bada.



- Eragiketak egikaritzetik eratorritako diru sarreren galeren konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoa aldatu egin da. Erauzketa barne hartzen duten birlandaketetan, mahatsaren batez besteko balioaren % 33 estaltzen da hiru kanpainatan; barietatea birmoldatzeko edo kudeaketa teknikak hobetzeko eragiketetan, berriz, % 25, kanpaina batean.

Adibidez, ekoizpenaren balioa 4.200 €/ ha bada, birlandaketa-eragiketa batek 4.158 €/ ha kobratuko luke, eta gaintxertaketa-eragiketa batek 1.050 €/ ha

- Birlandaketa eragiketak gauzatzeko epea bi urtekoa izan ahal da, baina barietatea birmoldatzekoena eta kudeaketa teknikak hobetzekoena urtebetekoa izango da gehienez



2.- ESKABIDE AURKEZPENA, ONARPENA ETA DIRU-LAGUNTZA ORDAINKETAREN PROZEDURA

Laburbilduz, laguntzak eskatzeko, onartzeko eta ordaintzeko prozesuak honako fase hauek ditu:

1º LAGUNTZA ESKAEREN AURKEZPENA

- **Laguntza-eskaera:** Arabako Lurralde Historikoan laguntza hauek jaso nahi dituenak eskabide elektroniko bat aurkeztu beharko du Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari zuzenduta.
- **Eskabideak aurkezteko epea :** Deialdia onartzen duen Agindua indarrean sartzen denetik hilabete bat.
- **Aurkezteko lekua:** Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, horretarako prestatutako prozedura espezifikoaren bidez.

2º HASIERAKO ESKABIDEEN KONTROLA

- **Kontrolak:** Eskaera guztiei administrazio-kontrola eta landa-kontrola egiten zaie, baldintzak betetzen direla eta eskatutako ekintzak hasi ez direla egiaztatzeko hain zuzen.
- **Kontrol Organoa:** Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua.
- **Zuzenketak:** Eskabidean akatsak, ez-egiteak edo dokumentazio falta badago, interesdunari jakinarazpen elektroniko bat bidaliko zaio, gehienez ere hamar egun balioduneko epean eskabidea zuzentzeko edo aurkeztu ez den dokumentazioa aurkezteko. Epea amaitzen bada eskatutako zuzenketa egin gabe, espedientea izapidetzen jarraituko da, horrek ekar lieken ondorioekin.

3º ESKABIDEAK ONESTEA

- **Funtsen esleipena:** Kontrolak amaitu ondoren, Aldundiak Eusko Jaurlaritzari jakinarazten dio eskaera onargarrien zerrenda, lehentasun-irizpideen arabera ordenatuta, eta, aldi berean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari (NAEM) eskatzen dio funts-beharrak Euskal Autonomia Erkidegoan aurkeztutako eskabide guztiak onartzeko.
- **Erakunde eskuduna, ebazteko epea eta administrazio-isiltasunaren zentzua:** NAEM-ek finantza-esleipenaren berri ematen duenetik aurrera (normalean ekainaren erdialdean), Eusko Jaurlaritzako Erakunde Ordaintzaileak gehienez ere sei hilabeteko epea du



eragiketak ebatzi eta eskatzaileei jakinarazteko haiek eskatutako eragiketak onartu edo ukatu diren. Jakinarazpenik jaso ezean, eskatzaileek eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute.

- **Onartutako eragiketak hautatzea:** EAeri esleitutako aurrekontua eragiketa onargarri guztiak onartzeko nahikoa ez bada, eragiketa horiek lehentasun-irizpideak aplikatzean lortutako puntuazioaren arabera hautatuko dira.

- **Uko egiteko epea:** hilabete bat, eskaera onartzeko jakinarazpena jasotzen denetik. Epez kanpo uko eginez gero, eskatzaileak ezingo du onuradun izan hurrengo bi deialdietan.

4º ERAGIKETAK OSATZEN DITUZTEN EKINTZAK GAUZATZEKO EPEA

- **Laguntza eskatu aurretik hasitako ekintzak:** Laguntza eskatu eta tokian bertan kontrola egin aurretik hasitako ekintzak ez dira diruz lagunduko.

- **Diruz lagundu daitezkeen ekintzen hasiera:** Laguntza eskatu eta lana-kontrola egin ondoren, eragiketako ekintzak hasi ahal izango dira. Behin kontrola eginda, onuradunari jakinarazi ahal izateko, laguntza-eskabidearekin batera eredu bat aurkeztu behar da: "Landa-kontrola gauzatuaren jakinarazpen-eskaera". Hala ere, eragiketa azkenean onartzen ez bada, hasitako ekintzak ez dira diruz lagunduko hurrengo deialdietan.

- **Eragiketen iraupena:** Mahastiak birlandatzeko eragiketak bi urteko iraupena izan ahal dute baina eramate-sistema aldatzeagatik kudeaketa teknikak hobetzekoak eta barietate aldaketakoak urtebetekoak izango dira gehienez.

- **Eragiketen amaiera:** Eragiketak hasierako eskabidean adierazitako epean amaitu behar dira erabat.

5º DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA ESKABIDEEN AURKEZPENA

- **Ordainketa-eskaera:** Laguntza ordaindu ahal izateko, eragiketa burutu ondoren, onuradunak ordainketa-eskaera bat aurkeztu beharko du.

- **Ordainketa eskatzeko finantza-ekitaldia:** Hasierako eskabidean adierazitako finantza-ekitaldian egin beharko da ordainketa-eskaera.

- **Finantza-ekitaldi bakoitzean ordainketa-eskaerak aurkezteko epea:** Aurreko urteko urriaren 16tik eta urte horretako ekainaren 30eraino. (Adib.: 2026eko finantza-ekitaldiko eskabideak aurkezteko epea: 2025ko urriaren 16tik 2026eko ekainaren 30era arte)

- **Aurkezteko lekua:** Ordaintzeko eskaera AFaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da, eta hura gauzatu izana justifikatzen duten agiriekin batera aurkeztu beharko da (fakturak, ordainketa-egiaztagiriak, lan-orduen eta erabilitako makineriaren parte, e.a.)



6º ORDAINKETA-ESKAEREN KONTROLA

- **Kontrolak:** Ordainketa-eskaera guztiei administrazio-kontrola eta landa-kontrola egiten zaie betebeharrak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta ekintzak onartutakoaren arabera gauzatu direla egiaztatzeko.

- **Kontrol-organoa:** Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua.

- **Zuzenketak:** Eskabidean akatsik, omisiorik edo dokumentazio falta badauka, edo eragiketan zuzenketaren bat gauzatu behar bada, interesdunari jakinarazpen elektroniko bidez eskatuko zaio epe jakin batean dagokion gorabehera zuzentzeko. Epea amaitzen bada eskatutako zuzenketa egin gabe, espedientea izapidetzen jarraituko da, horrek dakartzan ondorioekin.

7º DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

- **Erakunde eskuduna, ebazteko epea eta administrazio-isiltasunaren zentzua:** Behin administrazio-kontrolak eta tokian bertan amaitutakoan, Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileari jakinarazten dio ordaindu beharreko eragiketa onargarrien zerrenda, eta zuzendariak ordainketa-ebazpena ematen du.

Laguntzaren ordainketa, hau eskatu den finantza-ekitaldiko urriaren 15a baino lehen egiten da, edo, data horretan, ordainketa-eskaera oraindik ebatzi gabeko gorabeheraren bat zuzentzeko epean aurkitzen bada, ordainketa gehienez ere urtebete atzeratu ahal izango da, ordainketa-eskaera aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita.

Ebazteko epea igaro eta ebazpen adierazia jakinarazi ez bada, eskatzaileak bere eskaera ezetsitzat jo ahal izango du.



3.- ESKATZAILEEN ONARGARRITASUN BETEKIZUNAK

▪ HONAKO HAUEK IZAN DAITEZKE LAGUNTZEN ONURADUNAK:

Ardogintzarako mahatsa ekoizteko mahastiak dituzten mahastizaintzako ustategiak, baldin eta mahastiak berregituratu edo birmoldatzeko eragiketak egin nahi badituzte eta azken lurzatiak Arabako Lurralde Historikoan badituzte.

Beraz, mahastizaintzako ustategia beste autonomia erkidego bateko ustategien erregistroan inskribatuta badago ere, Araban eskatu ahal izango du laguntza, berregituratutako edo birmoldatutako mahastia bere lurralde historikoan badago.

Era berean, beste autonomia erkidego batean kokatutako mahastiak erauztea eskatzen duten birlandaketa eragiketak badira, laguntza Araban eskatu ahal izango da, erauzketa ekintza barne, baldin eta berregituratutako mahastia lurralde historikoan badago.

▪ HONAKO HAUEK EZIN DAITEZKE LAGUNTZEN ONURADUNAK IZAN:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolatze aruei buruzko Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako baldintzaren bat betetzen ez dutenak.

b) Araudian ezarritako onargarritasun edo lehentasun irizpideak betetzeko eskatutako baldintzak artifizialki sortu dituztela frogatzen zaien eskatzaileak.

c) Ustategiko eremuren batean mahasti sailei buruz indarrean dagoen araudia betetzen ez duten ustategiak, edo uztari, ekoizpenari, izakinei, tratamenduari edo merkaturatzeari buruzko nahitaezko aitorpenei buruzko xedapenak betetzen ez dituztenak.

d) Uraren arloan eskumena duen agintariren batek (Uraren Euskal Agentzia (URA), konfederazio hidrografikoak eta abar) baliabide hori, laguntza eskatu duten hektarea ureztatuetan, legez kanpo erabiltzeagatik zehapen irmoa ezarri dien pertsonak.

e) Espainiako Mahastizaintza eta Ardogintza Sektoreari Laguntzeko 2019-2023 Programaren (EMASLP) edo mahastizaintzako eta ardogintzako 2024-2027 esku hartze sektorialaren (MAES) aurreko deialdietan onuradun izan diren pertsonak ezin izango dira bi deialditan onuradun izan, ezinbesteko arrazoiak edo salbuespenezko inguruabarrak izan ez badira, betiere:

i) Behin onetsita, eskatutako eragiketa baten laguntzari uko egin bazioten, ezarritako epearen barruan uko egin ziotela jakinarazi ez bazuten.



ii) Ez bazuten onetsitako eragiketa bat ordaintzeko eskatu, laguntza eskatu ondorengo bigarren finantza ekitaldiaren barruan ordainketa eskaera aurkezteko ezarritako epea amaitu ondoren.

iii) Ez bazuten ordainketa eskatzeko onetsitako eragiketarik gauzatu.

4.- ERAGIKETEN ONARGARRITASUN BETEKIZUNAK

Eragiketa mahasti lursail bat berregituratzeko edo birmoldatzeko egingo diren ekintzen multzoa da, eta hori ustiategi berak mahastia landatzen duen azalera zehaztutzat hartzen da.

Laguntza eskatu nahi den eragiketa bakoitzeko, "Eragiketaren banakako fitxa" bat aurkeztu beharko da, gauzatuko den eragiketa motaren arabera, eta honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Berregituraketa eragiketa egin ondoren mahasti lursailaren azalera 0,3 hektareakoa izango da gutxienez. Horretarako, azalera txikiagoa eskatzen den eragiketetan, ustiategi berak landatutako mahasti mugakideak adierazi beharko dira laguntza eskaeran, mahastizaintzako lurzati berekotzat hartu behar direnak.

Barietatea birmoldatzeko eragiketetan eta eramate sistema aldatzeagatik kudeaketa teknikak hobetzeko eragiketetan, gutxieneko azalera hasierakoa izango da.

- Mahastizaintzako ustiategi berak deialdi berean gehienez 25 hektareako azalera eska dezake.

- Landaketa guztietan nahitaez erabili beharko dira ziurtatutako txertaka euskarriak.

- Honako hauek ezin izango dute laguntza erregimen hori baliatu:

a) Mahastiak normaltasunez berritzea, hau da, lurzati berean mahats barietate berarekin eta eramate-sistema berberarekin birlandatzea.

b) Azken 10 kanpainetan mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntza jaso duten eremuak, honako zioengatik izan ezik:

1. Gida sistema aldatzeagatik kudeaketa teknikak hobetzeko eragiketa bat egiteko.

2. Eremuan eragina izan duten ezinbesteko arrazoiak edo aparteko inguruabarrak, baldin eta ez badira erabiltzen mahats barietate bera eta eremu horretan mahats orpoak hazteko zegoen sistema bera.

c) Landaketa berria egiteko baimenarekin landatu ziren azalerak, landaketa egin eta lehenengo bost urteetan.



d) Landaketa berrirako baimenez egingo diren eragiketak.

e) Landaketa baimenak erabiltzen diren azaleretako erauzketa kostuak, zeinak ez baitira sortu berregituraketako eragiketa aplikatzean egindako erauzketagatik, eta erauzketa egin bazen kasuan kasuko laguntza eskaera aurkeztu aurretik.

f) Laguntza eskaera onetsi aurretik tokian bertan kontrola egin aurretik hasitako ezein ekintzaren kostuak.

g) Ekintza hauen kostuak:

- Mahasti baten eguneroko kudeaketa.
- Ehizaren, txorien edo txingorraren kalteen aurkako babesak.
- Haize babesak eta haizearen aurkako babes hormak eraikitzea.
- Sarbideak eta igogailuak.
- Traktoreak edo edozein motatako garraio ibilgailuak erostea.
- Kutsatutako mahastiak erauztea eta diru sarrerak galtzea, osasun arrazoiengatik edo arrazoi fitosanitarioengatik nahitaez erauzi behar direnean.
- Ureztatze sistema jartzea.

h) Bigarren eskuko materiala.

i) Balio erantsiaren gainera zerga. Horri dagokionez, 905/2022 Errege Dekretuaren 77. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.



5.- KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

▪ ERAGIKETA OSATZEN DUTEN EKINTZAK HASTEKO UNEA

Ezin izango da laguntza eskaeran jasotako ekintzetako bat ere gauzatzen hasi onespen jakinarazpena jaso arte edo tokian bertan dagokion kontrola egin arte. Horretarako, eskatzaileak eskatu ahal izango du horren berri eman diezaiotela hura gauzatu ondoren, "Tokian bertan kontrola gauzatu dela jakinarazteko eskaera" inprimakia betez.

▪ DIRU-LAGUNTZARAKO ONARGARRIAK DIREN LANDAKETA BAIMENAK EDO ESKUBIDEAK

Laguntza eskatu duen ustategian bertan mahastiak erauzteagatik sortutako landaketa-baimenak baino ez dira diruz lagunduko.

Landatzeko baimenean ez badira erabiltzen hasierako eskabidean edo eskabide aldatuan adierazitako mahastiak erauzteak sortutako eskubideak, eragiketa ez da diruz lagunduko.

▪ DIRU SARREREN GALEREN KONPENTSAZIOA

Birlandaketa-eragiketetan, mahastiaren erauzketa eragiketaren barruan dagoenean bakarrik lagundu ahal izango da diruz.

Basotik horma-sarera aldatzeko eragiketetan, diruz lagundu ahal izateko, lau urtetik gorako mahastiak inausi beharko dira, baldin eta baso-eramate formakuntzako soberan dauden besoak kentzen badira eta beso berriak horizontalki bideratzen badira.

Bai baso-formakuntzatik horma-sarera aldatzeko eragiketetan, bai gaintxertaketan, DGK ordaintzea eskatzen denean, mahastiari gutxienez mahasti-kanpaina batean baja eman beharko zaio.

▪ ESKATUTAKO LAGUNTZAREN AZALERA ETA LAGUNTZAREN XEDE DEN AZALERA

Laguntza eskaeran agertzen den azalera gehienez ere mahastien erregistroan inskribatuta edo baimenduta dagoen horren parekoa izango da.

Hala ere, laguntza ordaintzeko eskubidea izango duen azalera honako hau izango da: laguntza ordaindu aurretik tokian bertan egindako kontrolean neurtutako mahats orpoen perimetroak mugatutako azalera gehi ilaren arteko distantziaren erdiko tarteak.

Eskatutako azaleraren eta azkenean laguntza kobratzeko eskubidea duenaren arteko aldea % 20tik gorakoa bada, egiaztatutako aldearen ehunekoaren bikoitza den zigorra aplikatuko da, eta % 50etik gorakoa bada, laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.



Beraz, inskribatutako edo baimendutako azaleran sailak hartuko ez dituen eremu garrantzitsuak (altxatutakoak, ezpondak, barneko bideak, eta abar) egongo direla aurreikusten bada, eskatutako azalera laguntza kobratzeko eskubidea izango duenera egokitzen saiatu behar da.

Laguntza xede den azalera landatzea aurreikusten denera doitzeko, deskarga eremuan eskuragarri daude landaketaren krokisa sortzeko jarraibideak.

▪ HASIERAN ONETSITAKO ERAGIKETAREN EZAUGARRIAK ALDATZEA

Hasierako eskabidean onetsitako eragiketan ezarri nahi den edozein aldaketa laguntza kudeatzen duen organoari jakinarazi beharko zaio gauzatu aurretik eta behar bezala justifikatu beharko da. Aldaketa handiak badira, ebazpen berariaz baimendu beharko dira.

▪ ONARTUTAKO EKINTZEN GAUZAPENA

Hasierako laguntza eskaeran edo aldatutakoan onetsitako ekintza guztiak gauzatu beharko dira, eta ekintza horietakoren bat gauzatu behar ez bada, aldaketa handitzat joko da, eta aldez aurretik komunikatu eta onetsi beharko da.

Ekintzaren bat gauzatzen ez bada, edo partez gauzatzen bada, ezinbesteko kausak edo salbuespenezko inguruabarrak ez diren arrazoiengatik, eta hasierako eskaera aldatzeko aldez aurretik eskatu eta baimendu ez bada, partez gauzatu edo gauzatu gabeko ekintzarako onetsitako zenbatekoaren % 100eko zigorra aplikatuko da. Gainera, gauzatu ez den edo partez gauzatu den ekintzak eragiketaren helburu orokorra lortzea eragotzi badu, laguntza osoa ordaintzea ukatuko da.

▪ FAKTURAK ETA ORDAINAGIRIAK

Ordainketa-eskaerarekin batera, eragiketa osatzen duten ekintzak gauzatu direla egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu behar dira.

Ekintzak ustiategitik kanpoko eskulanarekin gauzatzen direnean, ordainketaren fakturak eta egiaztagiria aurkeztu beharko dira, eta biek laguntzaren onuradunaren izenean egon beharko dute. Faktura edo ordainketa-egiaztagiria onuradunaren izenean ez badago, ez da ekintza horren laguntza ordainduko, haren kostua bere gain hartu ez duelako.

Fakturetan, erabilitako materiala edo makineria eta unitateko kostuak zehaztu beharko dira (€/ orduko, €/ landareko, €/ unitateko).

Fakturaren kontzeptuak hainbat ekintza biltzen baditu, ekintza horiek banakatuta agertu beharko dute, eta halakorik ezean, eskatzaileak zehaztu beharko du zer ekintzari dagozkion.



▪ USTIATEGIAREN ESKULANAREKIN GAUZATUTAKO EKINTZAK

Ustiategiaren beraren eskulanarekin egiten diren ekintzak justifikatzeko, ordu-aitorpen bat bete beharko da, eta, bertan, pertsonak, makinak eta horiek gauzatzeko erabilitako denbora identifikatu beharko dira.

Ustiategian inskribatuta ez dauden eta inolako ordainketarik jaso ez duten makinekin edo langileekin egindako ekintzengatik ez da inolako laguntzarik ordainduko.

Ekintzaren bat ustiategiak kontratatutako langileekin egin bada, langileen nominak aurkeztu beharko dira.

▪ EZ DA DIRUZ LAGUNDUKO BIGARREN ESKUKO MATERIALA ERABILITA EGINDAKO EKINTZARIK

▪ EZ DA DIRUZ LAGUNDUKO ESKUDIRUTAN ORDAINDU DEN EKINTZARIK

▪ EPEZ KANPO AURKEZTUTAKO ORDAINKETA-ESKAERAK

Eragiketa bakoitza amaitu eta ordainketa eskatu beharko da hasierako eskaeran adierazitako finantza ekitaldirako ezarritako ordainketa eskaeren epearen barruan.

Ordainketa kasuan kasuko ekitaldiko epetik kanpo eskatzen bada, baina hasierako eskaeraren ondorengo bigarren ekitaldia amaitu baino lehen, laguntza % 20 murriztuko da.

Laguntza eskatu ondorengo bigarren ekitaldia amaitu ondoren eskatzen bada ordainketa, laguntza kobratzeko eskubidea galduko da. Beraz, bi urtean behingo eragiketek ezin dute ordainketa eskaera atzeratu onetsitako edo aldatutako eskaeran adierazitako finantza ekitalditik harago.

Ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko egoeretan ez dira murrizketa horiek aplikatuko.

▪ GAUZATU AURRETIK MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUARI JAKINARAZI BEHAR ZAIZKION EKINTZAK

Harri gabetzea, lurraren-berdinketa, lurraren-egokipena, zapaldatzea eta harrizko hormekin zapaldatze ekintzak noiz hasiko diren behar besteko aurrerapenaz jakinarazi behar zaio Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari, zerbitzu horretako langileek bitarteko ikuskapen bat egin dezaten gauzatzen ari direla egiaztatzeko eta egoki iritzitako jarraibideak helarazteko.

Ekintzak hasteko unearen jakinarazpena erregistro elektroniko komunaren bidez edo posta elektronikoaren bidez egin beharko da, eskatzaileak hasierako eskaeran emandako helbide elektronikotik, mahastilaguntzak@araba.eus helbidera zuzenduta.



▪ DIRUZ LAGUNDUTAKO INBERTSIOAK MANTENTZEKO KONPROMISUA

Laguntzaren onuradun diren azalerak laborantzan eduki beharko dira, eta diruz lagundutako inbertsioei gutxienez hamar kanpainatan eutsi beharko zaie, ordainketa eskatu eta hurrengo kanpainatik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen mahastia beste ustiategi batera eskualdatzen bada, onuradunak konpromiso hori bere gain hartzen duela jakinarazi beharko dio ustiategi berriari.

Baldintza hori betetzen ez bada, jasotako laguntza itzuli beharko da, bai eta dagozkion legezko interesak ere.

▪ LEHORREKO-LABORE BEZALA MANTENTZEKO KONPROMISOA

Eragiketaren helburua baliabide hidrikoen erabilera hobetzea dela justifikatu bada, eta mahastia lehorreko laborantzan mantentzeko konpromisoa hartu bada, gutxienez hamar kanpainatan egon beharko du erregimen horretan, ordainketa eskatu zen kanpainaren hurrengotik zenbatzen hasita, eta epe hori amaitu baino lehen mahastia beste ustiategi batera eskualdatzen bada, onuradunak konpromiso hori bere gain hartu duela jakinarazi beharko dio ustiategi berriari.

Baldintza hori betetzen ez bada, jasotako laguntza itzuli beharko da, bai eta dagozkion legezko interesak ere.

6.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN EKINTZAK ETA ZENBATEKOAK

Diru-laguntzaren zenbatekoa, onartutako ekintzak gauzatzeagatik jasandako kostuei % 45 edo % 50a (ustiategiak betetzen dituen lehentasun-irizpideen arabera) aplikatuz kalkulatu da, betiere kostu horiek hurrengo taulan ezarritako gehieneko kostuak gainditzen ez badituzte.

Taulan adierazitako ekintzetan baino ez dira diruz lagunduko norberaren eskulanaren kostuak, betiere aurreko atalean deskribatutako baldintzak betetzen badira.



DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN EKINTZAK ETA LAGUNTZEKO MODUKO GEHIENAKO
ZENBATEKO EDO KOSTUAK

Eragiketa mota	Diruz lagundu daitezkeen ekintzak		DLGK (1)	Ingurumen-ekintzak (IE)		Gauzazko ekarpenak
				IEren ezaugarriak	DLGK osagarria	
a) Birlandaketa, gidatzesistemarekikoa edo gidatzesistemarik gabekoa	Mahats-orpoak erauztea eta jasotzea		1.800 €/ha			Bai
	Lurzorua prestatzea	Sakoneko lana	1.600 €/ha			Bai
		Lurrazaleko lana	600 €/ha			Bai
		Ongarritua (4)	1.700 €/ha			Bai
	Lurra desinfektatzea		1.300 €/ha			Faktura soilik
	Harrigabetzea (3)		1.700 €/ha			Bai
	Lurra berdintzea (2) (3)		3.200 €/ha			Faktura soilik
	Zapaldatzea (5)		20.800 €/ha			Faktura soilik
	Harrizko hormen bidez zapaldak egitea (5)		23.952 €/ha			Faktura soilik
	Lurra egokitzea (2) (3)		2.500 €/ha			Faktura soilik
	Landarea eta landaketa		1,70 €/un.	Sestra-kurbak	0,24 €/un.	Bai
				Key-line sistema	1.350 €/ha	
	Landaren gazteen babesleak		0,81 €/un.	Biodegradagarriak	0,10 €/un.	Bai
	Gidatzesistema	Besorakoa	7.000 €/ha			Bai
		Oholesiak	7.600 €/ha			Bai
		Parrala edo antzekoa	23.000 €/ha			Bai
		Banakako goratzea	3,83 €/un.			Bai
		Ontzi bermatua	6.600 €/ha			Bai
b) Mahastiak birmoldatzea barietatea aldatzeagatik.	Makatzean gaintxertatzea edo txertatzea baimendutako barietateak erabiliz (materiala eta txertoa)		1,41 €/un.			Faktura soilik



Eragiketa mota	Diruz lagundu daitezkeen ekintzak		DLGK (1)	Ingurumen-ekintzak (IE)		Gauzazko ekarpenak
				IEren ezaugarriak	DLGK osagarria	
c) Kudeaketatekniken hobekuntza.	Ontziaren ordeztasunak		1.150 €/ha + besorako gidatzesistema			Bai
	Ontziaren ordeztasun oholak		1.150 €/ha + oholaren gidatzesistema			Bai
	Ontziaren ordeztasun parrala edo antzeko erabiltzea		1.150 €/ha + parralaren gidatzesistema			Bai
	Ontziaren ordeztasun banakako goratzea erabiltzea		Banakako goratzearen gidatzesistema			Bai
	Ontziaren ordeztasun ontzi bermatua erabiltzea		Ontzi bermatuaren gidatzesistema			Bai
	Parralaren ordeztasun besorako, oholak edo banakako goratzea erabiltzea		2.100 €/ha + gidatzesistema			Bai
d) Arrazoi sanitario edo fitosanitarioak direla-eta erabiltzearen ondoriozko birlandaketa	Lurzorua prestatzea	Sakoneko lana	1.600 €/ha			Bai
		Lurrazaleko lana	600 €/ha			Bai
		Ongarritua (4)	1.700 €/ha			Bai
	Lurra desinfektatzea		1.300 €/ha			Bai
	Landarea eta landaketa		1,70 €/un.	Sestra-kurbak	0,24 €/un.	Bai
				Key-line sistema	1.350 €/ha	
	Landaren gazteen babesleak		0,81 €/un.	Biodegradagarriak	0,10 €/un.	Bai

(1) DLGK = diruz lagundu daitezkeen gehieneko kostua edo zenbatekoa.

(2) Lurra egokitzeko lanak eta lurra berdintzekoak ez dira bateragarriak.

(3) Foru-organo eskudunari behar beste denboraz jakinarazi behar zaio hasteko unea, tarteko ikuskatze bat egiteko.

(4) Ongarri minerala erabiliz gero, luraren analisia eta ongarri mota hori erabiltzea justifikatzen duen txosten tekniko egin behar da.

(5) Proiektu bat aurkeztu behar da, behar den titulazioa duen teknikari batek egindakoa.

Gauzazko ekarpenak	Diruz lagundu daitezkeen kostua (€/ordu)
Peoiaren lanorduak	10,00
Makinetako lanorduak	75,00



7.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

- AGINDUA, 2025eko abenduaren 9koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketetarako laguntzen deialdirako oinarri arautzaileak onartzen baitira 2026ko ekitaldirako; laguntza horiek MAES Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektorialaren barruan daude, 2023-2027ko NPE Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategiko Nazionalaren esparruan
- 905/2022 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan mahastizaintzako eta ardogintzako esku hartze sektoriala arautzen duena.
- 1047/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Plan Estrategikoaren esku hartzeak eta Nekazaritza Politika Erkidearen beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duena.
- 147/2023 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan jasotako esku hartzeetan penalizazioak aplikatzeko arauak ezartzen dituena, eta 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidea Espainian aplikatzearekin lotutako hainbat alderdi arautzen dituzten zenbait errege dekretu aldatzen dituena